

<p>ZORROTZAURREKO 1. EGIKARITZE-UNITATEAREN ITUNTZE-BATZARRAREN ETA BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, ZORROTZAURREKO EREMU MISTOAREN 1. JARDUKETA-INTEGRATUKO 1. EGIKARITZE-UNITATEAREN URBANIZAZIO-PROIEKTUAN BARNE HARTUTAKO GOIKO HORNIDURA-HODIAK EGIKARITU ETA FINANTZATZEKOAK</p>	<p>CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA JUNTA DE CONCERTACION DE LA UNIDAD DE EJECUCIÓN 1 DE ZORROTZAURRE Y EL CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA, PARA LA EJECUCIÓN Y FINANCIACIÓN DE LAS CONDUCCIONES DE ABASTECIMIENTO EN ALTA INCLUIDAS EN EL PROYECTO DE URBANIZACIÓN U.E. 1 ACTUACIÓN INTEGRADA 1 DEL ÁREA MIXTA DE ZORROTZAURRE.</p>
<p>Bilbon, 2022ko irailaren 28an</p>	<p>En Bilbao, a 28 de septiembre de 2022</p>
<p><b>BILDUTA</b></p>	<p><b>REUNIDOS</b></p>
<p>Carlos Quindós Fernández jn.</p>	<p>D. Carlos Quindós Fernández</p>
<p>eta Kepa Odriozola Azula jn.</p>	<p>Y D. Kepa Odriozola Azula</p>
<p><b>PARTAIDEAK</b></p>	<p><b>INTERVIENEN</b></p>
<p>Lehenengoa, Zorrotzaurreko 1-EUren Ituntze Batzarraren (IFK: V-95740437) presidentea den aldetik eta erakunde horren legezko ordezkaritza bere gain hartuta.</p>	<p>El primero en su calidad de presidente de la Junta de Concertación de la UE-1 de Zorrotzaurre (NIF V-95740437) asumiendo la representación legal de este Organismo.</p>
<p>Bigarrena, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa ordezkatzeko gaitasun legala duen aldetik eta hitzarmen hau sinatzeko gaituta egonik, 2020ko irailaren 27an Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakia dela bide.</p>	<p>El segundo, en ejercicio de la capacidad legal de representación del Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia, autorizado para la firma del presente convenio por acuerdo adoptado por el Comité Directivo de fecha 27 de septiembre de 2022.</p>
<p>Alderdiek esku-hartzeko kontzeptuan jarduteko nahikoa gaitasun legal aitortu diote elkarri, eta</p>	<p>Las partes se reconocen recíprocamente la capacidad legal necesaria para actuar en el concepto en el que intervienen, y</p>

ADIERAZTEN DUTE	EXPONEN
LEHENENGOA	PRIMERO
<p>Gaur egun, Zorrotzaurreko 1-EUren Ituntze Batzarra (aurrerantzean, Batzarra) Bilboko Zorrotzaurre uhartea urbanizatzeko lanak gauzatzen ari da, eta lanok hainbat fasetan daude banatuta.</p> <p>Testuinguru horretan, Batzarrek SAITEC ingeniaritzari eskatu dio honako proiektu hau idatz dezala: "Zorrotzaurreko eremu mistoaren 1. jarduketa integratuko 1. egikaritze-unitatearen urbanizazio-proiektua".</p>	<p>En la actualidad, la Junta de Concertación de la UE-1 de Zorrotzaurre (en adelante la Junta) está acometiendo por fases la urbanización de la isla de Zorrotzaurre en Bilbao.</p> <p>En este contexto la Junta ha encargado a la ingeniería SAITEC la redacción del "Proyecto de Urbanización de la Unidad de Ejecución 1 de la Actuación Integrada 1 del Área Mixta de Zorrotzaurre."</p>
BIGARRENA	SEGUNDO
<p>Proiektu horren baitan jaso dira hornidura-hodiak egikaritzeko lanak. Hodi horiek Nerbioi-Ibaizabal itsasadarreko eskuinaldearen eta ezker aldearen arteko goiko konexioa osatuko dute etorkizunean.</p>	<p>Este proyecto incluye la ejecución de unas conducciones de abastecimiento, que formarán parte de la conexión en alta entre la margen derecha y la margen izquierda de la ría Nerbioi-Ibaizabal en el futuro.</p>
HIRUGARRENA	TERCERO
<p>Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak (aurrerantzean, Partzuergoa) Bilbo udalerrira hornitzen du Zadorra sistema (Beteluriko EUTaren bidez) eta Ordunteko sistema (Sollanoko EUTaren bidez) baliatuz. Udalerri barruko banaketa-sarea Bilboko Udalak ustiatzen du zuzenean. Partzuergoak jakin badaki Beteluriren eskuinaldeko arterien bidez ura hornitzea eragozten duen larrialdi-egoera baten aurrean, itsasadarraren bi aldeen arteko loturak ez direla nahikoak ezker aldeetik eskuinaldera behar den emari guztia eramateko. Horregatik, egokitzat jotzen du Zorrotzaurreko urbanizazio-obren baitan interkonexio-tarte hori egikaritzea.</p>	<p>El Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia (en adelante Consorcio), abastece en alta al municipio de Bilbao, desde el sistema Zadorra a través de la ETAP de Venta Alta, y desde el sistema Ordunte a través de la ETAP de Sollano.</p> <p>La explotación de la red de distribución interna del municipio la realiza directamente el Ayuntamiento de Bilbao.</p> <p>Es conocido por el Consorcio que ante una situación de emergencia que impida la distribución de agua a través de sus arterias de margen derecha de Venta Alta, las conexiones existentes entre ambos márgenes son insuficientes para trasvasar todo el caudal necesario desde la arteria de margen izquierda, a la margen derecha.</p> <p>Por ello, considera una condición de oportunidad la ejecución de este tramo de la interconexión dentro de las obras de urbanización de Zorrotzaurre.</p>

<b>LAUGARRENA</b>	<b>CUARTO</b>
Egikarituko den hodiak jarraipena emango dio dagoeneko Frank Gehry zubian kokatutako tarteari, eta hegoaldeetik gurutzatuko ditu uhartea eta itsasadarra, Olabeagako ertzean amaitu arte.	La conducción a ejecutar dará continuidad al tramo ya colocado en el puente Frank Gehry, cruzando la isla por su extremo sur, la ría y finalizando en la margen de Olabeaga.
<b>BOSGARRENA</b>	<b>QUINTO</b>
SAITECek idatzitako proiektuaren arabera, irtenbide global hori bi tartetan banatu da, jarrian zehaztu den moduan, eta hitzarmen honi erantsitako oinplano orokorrean islatu da: <b>1. TARTEA: ITSASADARRAREN AZPIKOA</b> Itsasadarraren azpitik Olabeagarantz gurutzatzeko, 630 mm-ko dentsitate handiko polietilenoazko bi tarte ainguratuko dira, eta hodi horietako bat soilik erabiliko da bestea matxuratuz gero. <b>2. TARTEA: LURREKOA</b> Lurreko tarteari, uhartearen hegoaldeko muturra zeharkatuko duenak, itsasadarraren azpiko tartea lotuko du Frank Gehry zubian jada instalatuta dagoen hodiarekin, eta 600 mm-ko diametroko burdinurtu nodularreko hodi bat erabiliko da horretarako.	En el proyecto redactado por SAITEC, esta solución global se ha dividido en dos tramos según se define seguidamente y queda reflejado en el plano de Planta General anexo al presente convenio: <b>TRAMO 1: SUBFLUVIAL</b> El cruce bajo la ría hacia Olabeaga se realizará mediante un fondeo de dos tramos de 630 mm de Polietileno de Alta Densidad, de forma que uno de ellos se utilice únicamente en caso de avería de la otra conducción. <b>TRAMO 2: TERRESTRE</b> El tramo terrestre, que cruzará el extremo sur de la isla, uniendo el tramo subfluvial con la conducción ya instalada en el puente Frank Gehry, se ejecutará con tubería de fundición dúctil de diámetro 600 mm.
<b>SEIGARRENA</b>	<b>SEXTO</b>
Hitzarmen hau sinatzen duten erakundeek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, aurreko azalpen-tarteetan aipatutako obrak gauzatzen lagunduko dute, hitzarmen honetan adierazitako moduan eta baldintzetan.	Las entidades que suscriben el presente convenio, en el marco de sus respectivas competencias, van a colaborar en la ejecución de las obras a que se ha hecho referencia en los expositivos anteriores en los términos y condiciones que se expresan en el presente convenio.
<b>ZAZPIGARRENA</b>	<b>SÉPTIMO</b>
Batzordeak lizitatu, esleitu eta gauzatuko ditu deskribatutako jarduketak barne hartzen dituzten obrak eta obra-zuzendaritzako eta laneko segurtasuna eta osasuna prebenitu eta mantentzeko lanak.	Las obras que engloban las actuaciones descritas, y los trabajos de dirección de obra, prevención y mantenimiento de la Seguridad y Salud Laboral, serán licitadas, adjudicadas y ejecutadas por la Junta.
<b>ZORTZIGARRENA</b>	<b>OCTAVO</b>
Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak hodiekin bete behar dituzten baldintza teknikoak eman ditu,	El Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia ha facilitado los requisitos técnicos que deben

baldintza tekniko orokorren pleguaren arabera egikaritu daitezten.	cumplir las conducciones para que estas se ejecuten conformes a su Pliego de Prescripciones Técnicas Generales.
<b>BEDERATZIGARRENA</b>	<b>NOVENO</b>
Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari dagokio obra horiek eta horien zuzendaritzaren zati proportzionala finantzatzea, hitzarmen honetako klausuletan araututakoaren arabera.	La financiación de estas obras y de la parte proporcional de la dirección de las mismas corresponderá al Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia conforme lo regulado en las cláusulas del presente convenio.
<b>HAMARGARRENA</b>	<b>DÉCIMO</b>
Azaldutako guztiagatik, Batzarrak eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak, deskribatutako helburua gauzatzeko beharrezko lankidetzaz eta laguntza eman behar direla jakinik, interesatuta daude hitzarmen horiek adostasunez egiteko, eta, horretarako, lankidetzaz-hitzarmen hau formalizatuko dute, klausula hauen arabera:	Por todo lo expuesto, la Junta y el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia, conscientes de la necesidad de prestarse la cooperación y asistencia necesarias en la tarea común de hacer realidad el objetivo descrito, están interesados en abordarlos concertadamente, para lo cual proceden a la formalización del presente Convenio de Colaboración con arreglo a las siguientes cláusulas:

<u>KLAUSULAK</u>	<u>CLAUSULAS</u>
<b>LEHENA.- HITZARMENAREN XEDEA</b>	<b>PRIMERA.- OBJETO DEL CONVENIO</b>
Hitzarmen honen xedea da "Zorrotzaurreko eremu mistoaren 1. jarduketa integratuko 1. egikaritze-unitatearen urbanizazio-proiektua"ren baitan jasotako goiko hornidura-hodiak finantzatu, zuzendu eta egikaritzea.  Aipatutako proiektuaren arabera, hitzarmen honen xede diren hornidura-hodiak bi tarte hauetan banatu dira:	Constituye el objeto del presente convenio la dirección, ejecución y financiación de las conducciones de abastecimiento en alta contenidas en el "Proyecto de Urbanización de la Unidad de Ejecución 1 de la Actuación Integrada 1 del Área Mixta de Zorrotzaurre."  Las conducciones de abastecimiento objeto del presente Convenio se dividen en el proyecto referenciado en los dos tramos siguientes:
Itsasadarraren azpiko tarteak: Itsasadarraren azpian hainbat hodi ainguratuko dira, Olabeagarantz, 91 metro inguruko luzeran. Hodi horietako bi dentsitate handiko polietilenoaz egindako 630 mm-ko diametroko hornidura-hodiak dira. Bi hodi jartzearen	Tramo subfluvial: Consiste en el fondeo de varias tuberías bajo la ría hacia Olabeaga, en una longitud aproximada de 91 metros, de las cuales dos son tuberías de abastecimiento de Polietileno de Alta Densidad de 630 mm de diámetro. El objeto de la doble conducción es

<p>helburua honako hau da: bietako bat soilik erabiltzea bestea matxuratzen denean.</p>	<p>que uno de ellos se utilice únicamente en caso de avería de la otra conducción.</p>
<p><b>Lurreko tartea:</b> Tarte horrek uhartearen hegoaldeko muturra zeharkatuko du, itsasadarraren azpiko tartea lotzeko Frank Gehry zubian jada instalatuta dagoen hodiarekin. 600 mm-ko diametroko eta 105 metroko luzerako burdinurtu nodularreko hodi bakarria erabiliko da horretarako.</p>	<p><b>Tramo terrestre:</b> Es el cruce del extremo sur de la isla, uniendo el tramo subfluvial con la conducción ya instalada en el puente Frank Gehry, se ejecutará con una única tubería de fundición dúctil de diámetro 600 mm, en una longitud de 105 metros.</p>
<p><b>BIGARRENA: KONTRATAZIOA ETA OBREN ZUZENDARITZA</b></p>	<p><b>SEGUNDA: CONTRATACIÓN Y DIRECCIÓN DE LAS OBRAS</b></p>
<p>Batzarrari dagokio obrak kontratatzea, bai eta horiek zuzentzea ere. Era berean, laneko segurtasuna eta osasuna prebenitzeko eta mantentzeko lan guztien jarraipena egingo du.</p> <p>Hornidura-hodien obrak egikaritzeko, Partzuergoaren Baldintza Tekniko Orokorren Pleguak bete beharko dira, dagoeneko Batzarrari helarazi zaizkionak.</p>	<p>Corresponderá a la Junta la contratación de las obras, así como la dirección de las mismas y el seguimiento de todos los trabajos de prevención y mantenimiento de la Seguridad y Salud laboral.</p> <p>Las obras de las conducciones de abastecimiento deberán ejecutarse de conformidad con los Pliegos de Prescripciones Técnicas Generales del Consorcio, los cuales han sido facilitados a la Junta.</p>
<p><b>HIRUGARRENA: OBRAK ERAIKI ETA ZUZENTZEKO FINANTZAKETA</b></p>	<p><b>TERCERA: FINANCIACIÓN DE LA DIRECCIÓN Y CONSTRUCCIÓN DE LAS OBRAS</b></p>
<p>Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak bere gain hartuko du Hitzarmen honen xede diren eta lehenengo klausulan definitu diren obrak egikaritzeko finantzaketa.</p> <p>Era berean, obra-zuzendaritzaren finantzaketa bere gain hartuko du, lehenengo klausulan aipatutako hornidura-hodiei dagokien proportzioan.</p> <p>Obra-zuzendaritzaren kontzeptuaren baitan jaso da hitzarmen honen xede diren hornidura-hodiei dagokien proiektu-zatiaren obra-zuzendaritzako, laneko segurtasun eta osasunaren prebentzioko eta mantentze-lanetako eta ingurumen-kontrolleko ordainsariei dagokien zenbatekoa.</p>	<p>El Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia asume el compromiso de la financiación de la construcción de las obras que constituyen el objeto de este Convenio y que han sido definidas en la cláusula primera.</p> <p>Asimismo, asume la financiación de la dirección de las obras en la proporción correspondiente a las conducciones de abastecimiento referidas en la cláusula primera.</p> <p>Dentro del concepto de dirección de obras se incluye la cantidad correspondiente a los honorarios de dirección de obra, prevención y mantenimiento de la Seguridad y Salud Laboral, y control ambiental, de la parte correspondiente dentro del Proyecto a las conducciones de abastecimiento objeto de</p>

	este Convenio.
<p>“Itsasadarraren azpiko tartea”ren bi hodiak jartzeko lanen kostua ZORROTZAURREKO EREMU MISTOAREN 1. JARDUKETA-INTEGRATUKO 1. EGIKARITZE-UNITATEAREN URBANIZAZIO-PROIEKTUKO aurrekontuaren 1.12 azpikapituluan, “Deustuko erriberako hodiak ainguratzea”, jaso da.</p> <p>Adjudikazioaren aurrekontua BOSTEHUN ETA BERROGEITA HAMALAU MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA SEI EURO ETA BERROGEITA SEI ZENTIMO da (554.546,46 €, kontrata bidez egikaritutako aurrekontua, BEZik gabe).</p>	<p>El coste de instalación de las dos tuberías del denominado “Tramo subfluvia” está incluido dentro del subcapítulo 1.12 “Fondeo de tuberías ribera Deusto” del presupuesto del PROYECTO DE URBANIZACIÓN U.E. 1 ACTUACIÓN INTEGRADA 1 DEL ÁREA MIXTA DE ZORROTZAURRE.</p> <p>Su presupuesto de adjudicación asciende a QUINIENTOS CINCUENTA Y CUATRO MIL QUINIENTOS CUARENTA Y SEI SEUROS CON CUARENTA Y SEIS CÉNTIMOS (554.546,46 € PEC, IVA excluido).</p>
<p>“Lurreko tartearen” hodia jartzeko kostua goian aipatutako proiektuaren 3.6. azpikapituluan, “Eragindako zerbitzuak eta berritzeak”, jaso da.</p> <p>Adjudikazioaren aurrekontua HIRUROGEITA HAMAHIRU MILA EHUN ETA LAUROGEITA BEDERATZI EURO ETA LAUROGEITA HAMABOST ZENTIMO DA (73.189,95 €, kontrata bidez egikaritutako aurrekontua, BEZik gabe).</p>	<p>El coste de instalación de la tubería del denominado “Tramo terrestre” está incluido dentro del subcapítulo 3.6. “Servicios afectados y renovaciones” del proyecto citado arriba.</p> <p>Su presupuesto de adjudicación asciende a SETENTA Y TRES MIL CIENTO OCHENTA Y NUEVE EUROS NOVENTA Y CINCO CÉNTIMOS (73.189,95 € PEC, IVA excluido).</p>
<p>Obra zuzendaritzako, segurtasun- eta osasun-zeintzako eta ingurumen-kontrolako ordainserien kostua obren zenbatekoaren % 2,1 da.</p> <p>Beraz, kontzeptu horrengatik ordaindu beharreko zenbatekoa HAMAHIRU MILA EHUN ETA LAUROGEITA BI EURO ETA BERROGEITA SEI ZENTIMO DA (13.182,46 €, kontrata bidez egikaritutako aurrekontua).</p>	<p>El coste de los honorarios de dirección de obra, vigilancia de seguridad y salud y control ambiental de estas obras están valoradas en un 2,1% del importe de las obras.</p> <p>Por tanto, el importe a abonar por este concepto asciende según los importes de TRECE MIL CIENTO OCHENTA Y DOS EUROS CON CUARENTA Y SEIS CÉNTIMOS (13.182,46 € PEC).</p>
<p>Aurreko banakapena kontuan hartuta, hitzarmen honetatik eratorritako ordainketa-eta konpromiso-kredituak (Partzuergoari dagokio horiek finantzatzea) aipatutako proiektuko obren adjudikazio-prezioetan oinarrituta zehaztu dira, kautelaz eta gutxi gorabehera, SEIEHUN ETA BERROGEITA MILA</p>	<p>Considerando el desglose anterior, los créditos de pago y compromiso que derivan del presente Convenio, y cuya financiación corresponde al Consorcio, se establecen en base a los precios de adjudicación de las obras del citado proyecto, de forma cautelar y estimativa, en un importe de SEISCIENTOS</p>


BEDERATZIEHUN ETA HEMEZORTZI ZENTIMOTAN (640.918,88 €), BEZik gabe.	CUARENTA MIL NOVECIENTOS DIECIOCHO EUROS CON OCHENTA Y OCHO CÉNTIMOS (640.918,88 €), IVA excluido.
Obrak 2022. eta 2023. urteetan egikarrituko dira, eta hasiera batean honako urteko kuota hauek kalkulatu dira: 2022an: 350.000,00 € (BEZik gabe) 2023an: 290.918,88 € (BEZik gabe)	Las obras se ejecutarán en los años 2022 y 2023, con una estimación inicial de anualidades de: 2022: 350.000,00 € (IVA excluido) 2023: 290.918,88 € (IVA excluido)
Zenbatekoak aldatu ahal izango dira, kontratua garatu bitartean edo egin beharreko jarduketan baitan sor daitezkeen gorabeheren arabera (aldaketak, obra osagarriak, gehiegizko likidazioak, prezioen berrikuspenak, etab.), betiere bidezko izapideak betez eta Partzuergoak alde zuzenetik horien finantzaketa onartu ondoren.	Los importes podrán ser objeto de variación en función de las diferentes incidencias (modificaciones, obras complementarias, exceso en las liquidaciones, revisiones de precios, etc.) que pudieran surgir en el desarrollo de los contratos o actuaciones a realizar en el desarrollo del mismo, siempre con cumplimiento de los trámites oportunos y previa la aprobación del Consorcio a efectos de su financiación.
Gorabehera horiek onartzeko, hitzarmen honen arabera eratu den Jarraipen Batzordearen aldeko erabakia beharko da.	La aprobación de tales incidencias requerirá el acuerdo favorable de la Comisión de Seguimiento que se constituye en virtud de este Convenio.
<b>LAUGARRENA: INFORMAZIO ARLOKO BETEBEHARRAK</b>	<b>CUARTA: OBLIGACIONES DE INFORMACIÓN</b>
Aurreko klausulan xedatutakoari kalterik egin gabe, hartutako ebazpenen kopia bidaliko dio Batzarrak Partzuergoari, ebazpenak ematen diren unean bertan eta honako datu hauekin batera:	Sin perjuicio de lo establecido en la cláusula anterior, la Junta enviará al Consorcio, en el momento en que sean dictadas, copia de las resoluciones adoptadas acompañadas de los siguientes datos:
Kontratuaren izenburua eta xedea.	- Título y objeto del contrato.
Kontratua gauzatzen hasteko data eta gauzatzeko epea.	- Fecha de inicio de la ejecución y plazo de ejecución del contrato.
Lizitazioaren prezioa, dagozkion urteko kuota zehaztuta.	- Precio de licitación, con las anualidades correspondientes.
Erabili beharreko kontratazio-sistema (lizitazio-prozedura, hautatzeko modua eta kontratu-espeditarearen izapidetze-mota)	- Sistema de contratación a utilizar (procedimiento de licitación, forma de selección y tipo de tramitación del expediente contractual)
Hala badagokio, prezioen berrikuspena aurreikusita dagoen.	- En su caso, si se halla contemplada revisión de precios.
Adjudikazio-data.	- Fecha de adjudicación.
Adjudikazioduna.	- Adjudicatario.

<p>Adjudikazioaren zenbatekoa, dagozkion urteko kuotak zehaztuta.</p>	<p>- Importe de la adjudicación con las anualidades correspondientes.</p>
<p>Era berean, kontratuak gauzaten hasi ondoren, Batzordeak Partzuergoari bidaliko dizkio bere kontratazio-organoak hartu beharreko erabaki-proposamen guztiak, kontratuaren prezioan edo gauzatzeepean ondorioak badituzte, Partzuergoak alde aurretik onar ditzan, bai eta egindako lanak edo obrak jaso izanaren aktak bidali ere. Ondorioz, erakunde horrek alde aurretik onar ditzan, honako hauek bidaliko dira: prezioen berrikuspenak, kontratuen aldaketak, proiektu osagarriak, egikaritzepean luzapenak, eta kontratuaren prezioan edo gauzatzeepean eragina duen edozein akordio edo jarduketa.</p> <p>Horrez gain, amaierako ziurtagiriak eta kontratuen likidazioak ere bidali beharko zaizkio Partzuergoari.</p>	<p>Así mismo una vez iniciada la ejecución de los contratos, se remitirán por parte de la Junta al Consorcio, todas las propuestas de acuerdo a adoptar por su órgano de contratación y que tengan consecuencias en el precio del contrato o sobre el plazo de ejecución, para su aprobación previa por el Consorcio, así como las actas de recepción de los trabajos u obras realizadas. En consecuencia, se remitirán para su aprobación previa por dicha institución, las revisiones de precios, modificaciones de los contratos, proyectos complementarios, prórrogas de plazos de ejecución, así como cualquier acuerdo o actuación que tenga incidencia en el precio del contrato o en el plazo de ejecución.</p> <p>Además, deberán remitirse al Consorcio las certificaciones finales y las liquidaciones de contratos.</p>
<p><b>BOSTGARRENA: EKARPENAK ORDAINITZEA</b></p>	<p><b>QUINTA: ABONO DE LAS APORTACIONES</b></p>
<p>Batzarrak obra-ziurtagiriak kopia bidaliko dizkio Ur Partzuergoari, laburpen xehatu batekin batera. Laburpen horretan, hitzarmen honen xede diren obrai buruzko obra-unitateak argi eta garbi identifikatuko dira, eta hirugarren klausulan ezarritakoaren arabera dagozkion ziurtagiri eta/edo faktura bakoitzaren proportzioa ordaindu beharko du Partzuergoak, horretarako ezartzen den Batzarraren kontuan. Ordainketa egiteko hogeita hamar eguneko epea egongo da, arestian aipatutako dokumentuak erakundearen erregistroetan aurkezten direnetik aurrera zenbatzen hasita.</p>	<p>La Junta remitirá al Consorcio de Aguas, copias de las certificaciones de obra, junto con un extracto desglosado en el que se identifiquen claramente las unidades de obra relativas a la obra objeto de este convenio, quedando este obligado al ingreso de la proporción de cada certificación y/o factura que corresponda de acuerdo a lo establecido en la cláusula tercera, en la cuenta de la Junta que al efecto se establezca, en el plazo de treinta días desde la fecha de presentación en los registros de tales instituciones de los documentos referidos anteriormente.</p>
<p><b>SEIGARRENA: OBREN TITULARTASUNA</b></p>	<p><b>SEXTA: TITULARIDAD DE LAS OBRAS</b></p>
<p>Batzarrak obrak jaso ondoren, bai obrak, bai obra atxikita dauden ondasun eta eskubideak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren titulartasunekoak izatera igaroko dira harrerarekitaldian bertan.</p>	<p>Una vez efectuada la recepción de las obras por la Junta, tanto las obras como los bienes y derechos que se hallen adscritos a las mismas, en el mismo acto de recepción, pasarán a ser de titularidad del Consorcio de Aguas de Bilbao Bizkaia.</p>



<p>Une horretatik aurrera, Partzuergoak bere gain hartuko ditu titulartasunetik eratorritako eskubideak eta betebeharrak, baita hodiak ustiatu eta mantentzeko ardura ere.</p> <p>Hodi guztiak lursail publikoetatik igarotzen direnez, ez da zortasunik ezarri behar.</p>	<p>Desde ese momento, el Consorcio asumirá los derechos y obligaciones derivadas de la titularidad, así como la explotación y el mantenimiento de las conducciones.</p> <p>Dado que la totalidad de las tuberías discurren por terrenos públicos, no procede la imposición de servidumbres.</p>
<p><b>ZAZPIGARRENA: JARRAIPEN-BATZORDEA</b></p> <p>Jarraipen Batzorde bat eratuko da aurrekontuen gauzatze teknikoari eta desadostasunen ebazpenari dagokienez lanen garapenaren jarraipen zuzena bermatzeko. Batzorde horretan, Batzarra eta Ur Partzuergoa egongo dira ordezkatura, eta bakoitzak bi kide izango ditu.</p> <p>Batzordearen xedea izango da hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean alderdien arten sortzen diren arazo teknikoak, ekonomikoak eta kolaboraziozkoak argitzea.</p> <p>Batzorde horren baitan, Batzarrak obren egoeraren berri emango dio BBUPri, baita ohar garrantzitsuen berri eman ere, obrak behin betiko amaitzen diren arte.</p>	<p><b>SÉPTIMA: COMISIÓN DE SEGUIMIENTO</b></p> <p>A fin de garantizar el correcto seguimiento del desarrollo de los trabajos en lo que respecta a su ejecución técnica, presupuestaria y resolución de discrepancias al respecto, se establecerá una Comisión de Seguimiento en la que estarán representados la Junta y el Consorcio de Aguas, con dos miembros cada uno.</p> <p>El cometido de la Comisión será el de dilucidar cuantas cuestiones técnicas, económicas y de colaboración entre las partes se susciten durante la vigencia del Convenio.</p> <p>En el seno de esta Comisión, la Junta dará cuenta al Consorcio de Aguas, de la marcha del estado de las obras, y de las vicisitudes de relevancia que le afecten hasta su definitiva conclusión.</p>
<p><b>ZORTZIGARRENA: HITZARMENAREN ONDORIOAK ETA IRAUNALDIA</b></p> <p>Hitzarmen hau sinatzen denetik aurrera izango ditu ondorioak eta, alderdietako batek berariaz salatu ezean, hitzarmenak xede dituen prestazioak erabat amaitu arte egongo da indarrean, baina ezingo du lau urteko gehieneko epea gainditu.</p>	<p><b>OCTAVA: EFECTOS Y DURACION DEL CONVENIO</b></p> <p>El presente Convenio surtirá efectos desde la suscripción del mismo y permanecerá vigente, salvo denuncia expresa por alguna de las partes, hasta la total terminación de las prestaciones que constituyen su objeto, sin que pueda exceder del plazo máximo de 4 años.</p>
<p><b>BEDERATZIGARRENA: ALDAKETA-ARAUBIDEA</b></p> <p>Hitzarmen hau aldatzeko, hitzarmena sinatu duten alderdieri aho bateko adostasuna beharko da.</p>	<p><b>NOVENA: RÉGIMEN DE MODIFICACIÓN</b></p> <p>La modificación del presente convenio requerirá el acuerdo unánime de los firmantes del mismo.</p>

<p><b>HAMARGARRENA:</b> HITZARMENAREN <b>IRAUNGIPENA</b></p>	<p><b>DÉCIMA: EXTINCIÓN DEL CONVENIO</b></p>
<p>Hitzarmen hau bederatzigarren klausulan jasotako indarraldia igarotzen denean edo kontratua indargabetzen denean iraungiko da.</p> <p>Alderdietako batek bere gain hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, beste alderdiak hitzarmena zorrotz bete dadin edo iraungi dadin eskatu ahalko du, eta besteari eragindako kalte-galeren ordaina ez betetzea egotz dakioken betebeharra izango du.</p> <p>Hitzarmena indargabetuz gero, alderdiek egikaritzeke dauden jarduketak ordaindu eta amaitzeko baldintzak zehaztuko dituzte.</p>	<p>El Convenio se extinguirá bien por el transcurso del plazo de vigencia previsto en la cláusula novena, o bien por resolución.</p> <p>El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra a exigir su estricto cumplimiento o a solicitar su resolución, con la obligación de aquella a que fuere imputable el incumplimiento del resarcimiento de los daños y perjuicios que hubiere ocasionado a la otra.</p> <p>En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las actuaciones que se hallen en ejecución.</p>
<p><b>HAMAIKAGARRENA:</b> HITZARMENA <b>INTERPRETATZEKO ARAUBIDEA</b></p>	<p><b>UNDÉCIMA: RÉGIMEN E INTERPRETACIÓN DEL CONVENIO</b></p>
<p>Hitzarmen honek administrazio-izaera du, eta berau interpretatzeko eta garatzeko, lankidetzaz-hitzarmenei aplikatu beharreko ordenamendu juridiko administratiboari jarraituko zaio.</p> <p>Hitzarmen honek edo hitzarmenaren betearazpenak sor ditzakeen interpretazio-arazoak laugarren klausulan aurreikusitako Jarraipen Batzordeak ebatziko ditu. Jarraipen Batzordean ebazpena ematea ezinezkoa bada, Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoa beteko da.</p>	<p>Este Convenio tiene naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a los convenios de colaboración.</p> <p>La resolución de los problemas de interpretación que pueda plantear el presente convenio o su ejecución serán resueltos por la Comisión de Seguimiento prevista en la cláusula cuarta. Si no fuera posible la resolución en el seno de la Comisión de Seguimiento, se estará a lo dispuesto en la Ley 40/2015, 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.</p>
<p>Azaldutakoarekin ados daudela adierazteko, agertutako alderdiek hitzarmenaren bi ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.</p>	<p>Y en prueba de conformidad los firman los comparecientes, por duplicado ejemplar, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.</p>

 <p>BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOKO PRESIDENTEA</p> <p>KEPA ODRIOSOLA AZULA JAUNA</p>	<p>ZORROTZAURREKO I. EGIKARITZE- UNITATEAREN ITUNTZE-BATZARRAREN izenean</p> <p>CARLOS QUINDÓS FERNÁNDEZ</p>

I ERANSKINA

II ERANSKINA

